



Arartekoaren Ebazpena, 2008ko irailaren 18koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako Sailari gomendatzen zaio erreklamazioa aurkeztu duen merkataritzako erakundeari Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan eskatutako erregistro idazpenetara heltzeko modua erraztea.

Aurrekariak

1. (...jauna) (...enpresa) SL merkataritzako enpresaren ordezkari gisa, Arartekoari zuzendu zitzaion, “(...)” fundazioari buruzko dokumentazio eskaeraren inguruan, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroak burututako jarduera dela-eta.

Zehazki, interesdunek azaldu dute, 2007ko azaroaren 13an, ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren bidez onartu zen Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamenduko 13.1 artikuluan ezarritakoaren babesean, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroari (...) fundazioari buruzko ondorengo dokumentazioa eskatu ziotela:

*Idazpenen edukiaren ziurtagiria, horiek egin zireneko data adierazita, bereziki, Santurtziko Udalak patroik arguaren onarpenari eta onarpenaren inskripzioari dagozkionak, halakorik balego;

*Erregistroan dauden dokumentuen kopia konpultsatua;

*Ohartarazpen sinplea; eta

*Fundazioen inskripzio liburuan agertzen diren erregistro orrien kopia eskuetsia, horiek egin zireneko data adierazita, bereziki, Santurtziko Udalak patroik arguaren onarpenari eta onarpenaren inskripzioari dagozkionak, halakorik balego.

Aipatu merkataritzako enpresak, eskaera egiteko interes legitimoa justifikatzearen, adierazi zuen Hijas de la Cruz eskolaren kokaleku diren lurrak eskuratu zituela, (...) fundazioaren patroia den (...) jaunarenak. Eusko Jaurlaritzak salerosketaren aurka egin zuen, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako Sailak hala eskatuta, 2007ko maiatzaren 22an, Eusko Jaurlaritzako Kontseiluak Fundazioen Erregistroa daraman Fundazioen Babesletzaren izenean hartu zuen akordioa betetze aldera.

2008ko urtarrilaren 28an, Fundazioen Erregistroaren arduradunak aipatu fundazioaren patronatuari buruzko ziurtagiria, 2008ko urtarrilaren 10ekoa, eta Estatuaren 1963ko azaroaren 12ko 271 Aginduaren fotokopia bidali zituen. Ziurtagiri horrek honakoa dio:

“Que el Ayuntamiento de Santurce se encuentra inscrito en el Registro de Fundaciones del País Vasco como patrono interino de la “Fundación (...)”, y





ello de acuerdo con la Orden de 23 de octubre de 1963 del Ministerio de Educación Nacional por la que se acepta la renuncia al cargo de patrono de sangre de la citada Fundación formulada por D. (...) y (...), (...), y se confía el patronato de la Institución, con carácter interino al Ayuntamiento de Santurce.”

Era berean, Erregistroan fundazioari buruz dagoen dokumentazioaren kopiaren bidez erregistroa publiko egiteko eskaerari dagokionez, Erregistroaren arduradunak zer dokumenturen kopia nahi duen zehazteko eskatu zion, eskatzailearen interesa legitimotzat hartu ahal izateko, Fundazioen Erregistroaren Erregelamenduko 13. artikularekin bat etorritz.

Horri erantzunez, merkataritzako enpresak adierazi zuen salerosketa eragiketa aurkaratu egin zelako eta, hori baliogabetzat joz gero, hainbat ondorio izango zituelako zegoela interesatuta; eta, beraz, bistakoa zela, bere iritziz, interes legitimoa izatea erregistroan dagoen dokumentazio guztiaren kopia eskatzeko. Horrela, bertan zer dokumentu, inskripzio eta idatzohar dauden eta noiztik ageri diren egiaztatzeko. Bere iritziz, horien berri izatea oso garrantzitsua zen bere eskubideak defendatzeko.

Fundazioen Erregistroaren Erregelamenduko 14.5 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz, 2008ko otsailaren 15ean Erregistroaren arduradunak, merkataritzako enpresak eskatutako datuen publikotasunaren inguruko zalantzak zituenez, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzari azaldu zion gaia.

2008ko apirilaren 7ko Ebazpenaren bidez, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saileko Azterlan eta Lege Araubideko zuzendariak merkataritzako enpresak Erregistroa publiko egiteko egin zuen eskaera ukatu zuen, adierazten diren oinarri juridikoekin bat etorritz.

2. Erreklamazioa jaso ondoren, aurrekari horiek eta, zehazki, aurretik aipatu dugun ebazpena aztertuta, 2008ko apirilaren 7koa, zenbait balorazio egin ahal izan genituen eta Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailari helarazi genizkion, onartu eta bere egingo zituelakoan.

Egindako analisisian adierazi genuen moduan, interes legitimoa egiaztatuta, bere garaian azaldu genituen eta, gauzak alferrik ez errepikatzearren, gomendio honen zuzenbideko oinarrietan aipatuko ditugun arrazoiengatik, bidezkoa da Fundazioen Erregistroaren arduradunak merkataritzako enpresak eskatutako datuei buruzko dokumentazioa ziurtatu eta aurkeztea, ardurapean duen erregistroan egon daitezkeen erregistro idazpenekin eta gainerako dokumentazioarekin bat etorritz.

3. Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak, eta Azterlan eta Araubide Juridikoaren Zuzendaritzak emandako erantzunak, laburbilduz, honakoa zioen:





- Ez zekitenez ziur, guztiz gure esku zegoenik, Azterlan eta Araubide Juridikoaren Zuzendaritzak 2008ko apirilaren 8ko ebazpena hitzez hitz transkribatu zigun. Horren bidez, kexa aurkeztu duen merkataritza enpresak eskatutako erregistro publizitatea ukatzen da.
- Haien ustez, ebazpenaren transkripzioa irakurtzean ikus daitekeen moduan, erregistroko informazioa ez da ukatu administrazio jarduera eza edo antzeko kontuak direla-eta. Horrela, honakoa aipatu dute:
“Horren atzean dagoena askoz serioagoa eta garrantzitsuagoa da, eta Administrazio honen eta Santurtziko Udalaren iritziz interes publikoaren aurkako hainbat jardun eragin ditu, eta zuri, Ararteko jauna, jakinarazi zaizun deuseztasun-ekintza zibila jarri behar izan da.”
- Jarraian, Gobernu Kontseiluaren akordioa transkribatzen dute, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saileko sailburuak proposatuta; horrela, arestian aipatu dugun salerosketa kontratua baliogabetzeko. Akordioa ikusita, ondorioztatu dute sailaren jarduera ez dela apetatsua edo arbitrarioa izan, interes publikoan behar bezala oinarritua baizik.
- Erregistro informazioaren eskaerak zuzenbidearen aurkako egoera nahaspilatzeke asmoa du, eta gainera, prozedura gehigarriak sortuz, erabakiak lortu nahi ditu. Erabakiek, modu formalean soilik, kexa aurkeztu duen merkataritza enpresaren interesen defentsa urgazten dute, eta gainera, erabaki horiek, EAEko Auzitegi Nagusian, dagokion administrazioaren aurkako errekurtsioan ebazten dira.
- Prozedura (...) jaunak eskatu zuen, Justizia, Lana eta Gizarte Segurantzako Sailburuordearen 2007ko otsailaren 12ko Ebazpenaren, (Azterlan eta Araudi Juridikoko Zuzendariaren 2006ko azaroaren 9ko Ebazpena berrestitakoa) aurka egiteko. Ebazpen honen bidez ondorengoa ukatu zen; Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzaren aintzatespena, Santurtziko Udala Fundazioaren bitarteko patroï izatea, eta (...) jauna odolezko patroï izendatzea. Prozeduran eskatzen da demandatzailearen patroï karguaren hartzea isiltasunaren eraginez egin zela onartzea, demandatutako Administrazioa zigortzea dagokion erregistro orrian Fundazioari buruzko idazpena egitea eta data horretatik aurrerako inskripzioa agertzea.
- Bestalde, adierazi dute, duen garrantzia bereziagatik, aurreko paragrafoan aipatutako 2006ko azaroaren 9ko Ebazpena jaso eta lau egunera, (...) aunak kexa aurkeztu zuen merkataritza-enpresari eskola saldu ziola.
- Azkenik, gure esku-hartzea etetea eskatzen dute, aipaturiko administrazioarekiko auzi errekurtsioak interes arteko gatazka duelako oinarrian, eta horrek, hurrengo administrazio jardunei bide eman die, bere erabakiak kexan eragin zuzena duelako. Hori guztia Ararteko erakundea sortu eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 13. artikuluari jarraiki. Horren inguruan onartuko den ebazpen judizialak, bai eskatutako erregistro publizitatean zein administrazio publikoen eta eskatzailearen arteko interes gatazkan ere, eragina izango du.

Hori guztia ikusita, kexan adierazitakoa eta jasotako gogoetetan eta informazioan esandakoa aztertu ondoren, egokia iruditu zaigu zuri honako gogoeta hauek helaraztea:





Gogoetak

1. Lehenik eta aurretiazko kontu bezala, Ararteko erakundea sortu eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 13. artikuluari buruz egiten den aipamena aztertu behar da, gure esku-hartzea eteteko erabiltzen baita. Zehazki, artikulua dio:

“Arartekoa ez da sendetsitako epaiaren gai izan edo epailaritza-erabakiaren zain egon daitezen arrenkurak banaka aztertzen hasiko. Horretan hasi ondoren doakionen batek agizko Epaitegien edo Konstituzio-Epaitegiaren aurrerako zuzenketa-eskea edo goradeia srtzen badu, azterketak geldiarazi egingo dio.”

Lehenengo aurrekarian adierazi bezala, kexa eragin duen gaiak hizpide du merkataritza enpresak Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan eskatutako dokumentazioa eskuratzeko ezintasuna. Hala adierazita dago 2008ko apirilaren 7ko Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako Saileko Azterlan eta Araudi Juridikoko Zuzendariak emandako ebazpenean eta haren bidez debekatu zen erregistro publizitatea egitea.

Aitzitik, Administrazioak aipatzen duen administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren xedea, merkataritza enpresari higiezina saldu zion pertsonak eragindakoa, 2007ko otsaileko 12ko ebazpenaren aurkakoa da. Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako Sailburuordeak eman zuen eta 2006ko azaroaren 9ko Ebazpena berresten du, azken hori Azterlan eta Araubide Juridikoko zuzendariak eman zuen. Honakoa da eskatzen dena: demandatzaileak nagusi kargua onartzen zuenaren inskripzioa isiltasunagatik egin zela onartzea. Eta demandatutako Administrazioa zigortu dadin dagokion erregistro orrian Fundazioari buruzko idazpena egin dezan, aipatu den datan hasi zela jasotzen duela.

Honenbestez, lehenengo kasua erregistro publiko bateko idazpenetara eta dokumentuetara sartzeko debekuari buruzkoa da, eta bestea erregistro horretan bertan egintza baten inskripzioa ukatzea. Ebazpen biek puntu bakarrean egiten dute bat, alegia, biak Erregistro berari buruz ari direla, nahiz eta dagozkien egintzen edukia ez izan berbera.

Gainera, 2006ko ebazpena, 2007an gora jotzean ebatzitakoa, egintza administratibo irmoa da eta haren aurkako administrazio-auzi errekurtsoa ezarri zen. Aldiz, 2008ko apirilaren 7ko ebazpena, aurreko jarduerekin batera, hizpide dugun kexaren funtsa dira eta, guk dakigula, irmotasunik ez duen ebazpen bati dagozkio.

Azken batean, bide judizialean dagoen gaia delako gure esku-hartzearen etetea eskatzen da. Baina berritasun horrek bi alderdiren arteko nahasmena sortu du eta gure aburuz oso ondo ezberdintzen dira, hau da: batetik fundazioen jarduerekin lotutako egintzei dagozkion egintza materialak, ezarritako oinarritzko





baldintzekin batera Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroa sartzeko direnak. Eta jardura formalari dagokion beste alderdia, bitartekari izaera edo izaera instrumentala duena: erregistro publiko bateko datuetara sarbidea eta horretaz beranduago arituko gara.

Azaldutako gogoetak direla medio, aurretiazko kontu honi dagokionez ondorioztatu dugu objektu identitatea existitzen ez denez, ez da zilegi gure esku-hartzea etetea.

2. Esandakoak esanda, kexa hau sortu duten Administrazioako egintzak aztertzea zilegi da. Ekintza horiek 2008ko apirilaren 7ko ebazpenean izan dute amaiera, Azterlan eta Araubide Juridikoko zuzendariak emana eta haren bidez interesdun merkataritza enpresak eskatutako erregistro publikitatea ukatzen da.

Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzaren Araudiak (FBA), 100/2007 Dekretuaren, ekainaren 19koa, bidez onartua, indargabetu eta ondorioz gabe uzten du 404/1994 Dekretua, urriaren 18koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletza eta Erregistroaren Funtzionamendua eta Antolakuntzarako Araudia erregulatzen duena. Bestalde, 101/2007 Dekretuak, ekainaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroko Araudia onesten du (FRA).

Araudi horiei buruzko arrazoiak azalpenak adierazten du: 404/1994 Dekretuak, urriaren 18koa, aldi berean arautzen zituen Fundazioen Babesletza eta Erregistroa, baina helburu ezberdinak dituzte biek. Printzipio ezberdinetan dute funtsa eta, ondorioz, araudiaren edukia nabarmenki ezberdina da. Horregatik egokiagozat jo da dekretu maila duten arau ezberdinen bidez erregulatzea. Gainera, modu horretan, fundazioen babesletza eta erregistroari dagozkien funtzioak errazago argitzen laguntzen du.

Azken batean, araudi berriek bi erakundeen funtzioak ezberdintzea dute helburu, eta hori azpimarratzea garrantzitsua da, gerora esango denarekin lotuta.

Babesletza aholkularitza, laguntza teknikoa eta fundazioen kontrola emateko administrazio organoa da. Bere helburua da fundazio eskubidea baliatzea sustatzea eta erraztea, eta ziurtatzea bere eraketa, funtzionamendua eta fundazioen desegitea (FBA 1. artikulua). Bi jardura eremu ditu: a) Fundazioen aholkularitza, laguntza teknikoa eta kontrola eta b) Fundazioen Erregistroaren kudeaketa.

Bestalde, Fundazioen Erregistroak izaera juridikoa dauka eta hiritarrentzako zerbitzu publiko gisa osatuta dago. Halaber, bertara sartu nahi duten erakundeek ere baliatu dezakete (FRA 2. artikulua). Erregistroaren eraginkortasuna definitzen dute legezkotasuna, legitimazioa, lehentasun, segidako traktua, publikitate materiala eta formazko publikitateak (FRA 5. artikulua). Eta horiek guztiak artikuluetan garatzen dira.





Formazko publizitateari dagokionez, 13.1 FRA artikulua zehazten du Erregistroa publikoa dela bere edukia ezagutzeko interes legitimoa duten guztientzat. Bere jarduera, beraz, funtzionamendu baldintza formal batzuen menpean dago eta horiek dagozkion arauekin eta erregistro guztiei aplikatzen zaizkien oinarriko printzipioen berezko ezaugarriekin bat etorri errespetatu behar dira. Hau da, erregistroaren publizitateko eskatzen diren baldintzak betetzen dituzten guztiek eskubidea dute eskatutako dokumentuak eskuratzeko. Horri beranduago helduko diogu.

Erregistroak interesdunak dokumentuak eskatzeko izan dezakeen helburu edo asmoen gainean izan ditzakeen susmoak ez dira baliogarri edo oztupo, ezta arrazoi izaera publikoa duen erregistro batetik informazioa eskuratzeko eskubidea baliatzea ukatzeko. Dokumentuak eskuratzeko baldintzak betetzen dituen heinean.

Sailari informazioa eskatzeko bidali genion gure idazkian adierazi bezala, Administrazioak ezin dio legitimazioa ukatu errekurtsogileari eskatutako sarrera egiteko. Ez bada eskatutako informazioa erabilera gabekoa dela (edo zuzenbidearen aurkako egoera nahaspilatze asmoa bada, hemen adierazi den bezala). Izan ere, azken horrek informazioaren funtzio instrumentala sakrifikatuko luke eta horrela Administrazioaren hondoko irizpideari lehentasuna eman berau hizpide duen objektuaren gainean. Administrazioak interesdunari bere erabakia hartzeko elementuak ukatzen dizkio eta artxibo eta erregistro publikoetara sartzeko eskubidea baliogabe bihurtzen du (Administrazioaren iritzia emaitzaren balizko erabilerarekin ordezkatzeko da horrela, eta ez dugu ahaztu behar gaiari eragiten dioten prozedura judizialean alderdi dela) eta horrela funtsezko nukleoa urratuko litzateke. Horrela adierazten du, besteak beste, **1999ko matxoaren 30eko Epaitegi Goreneko Ebazpenak**.

Horregatik guztiagatik, 2008ko apirilaren 7ko ebazpenean aurkeztutako arrazoiak, merkataritzako enpresak lortu nahi zuen erregistroko publizitatearen azken intentzionalitateari eta helburuari buruzkoak, ezin da esan zuzenbidearekin bat datozenik. Zentzu horretan, merkataritzako enpresa erreklamatzailerak egindako eskaeran aurkeztutako arrazoiak ez dira onargarritzat jotzen (seigarren oinarri juridikoa) *“merkataritza-sozietateak egindako eskaera aztertu ondoren, ikusten da interesa dagoela itxura egiteko Santurtziko Udala ez dela, Euskubidez, fundazioaren patronatuaren benetako titularra, eta itxura hori trebeki behartzeko 1963ko egoera bati 1994. urtetik aurrera indarrean jarri den araubide juridikoa, hots, fundazioei buruz gaur egun indarrean dagoen araudia, aplikatu nahi zaio. Asmo horrek, anakronismoa eragiteaz gain, arau juridikoetako denbora-aplikazioaren araurik oinarrikoen aurka egiten du.”*

Merkataritzako enpresa interesdunak nahi duen posizio juridikoak babesa duen edo ez da aztertu beharreko gaia, ordenamenduaren ikuspuntutik begiratuta. Izan ere, hori prozedura judizialean argituko da, baina haren legezko interesa





erabiltzerakoan bildu ahal dituen frogatzeko materialaren epaia, hari dagokio. Beraz, eskura ditzakeen erregistro dokumentuek haren babeserako eskubideak baloratzeko balio dezakete.

Erreferentziko ebazpenean aurkeztutako arrazoiei dagokienez, bada kontuan hartu beharreko beste elementu bat. Zehazki, Fundazioko Patronatuari dagozkion bi funtzioen arteko nahasketa aipatzen dugu eta, gure ustez, bi funtzioak argi eta garbi zehaztu dira eta ezin dira nahasi. 2008ko apirilaren 7ko ebazpeneko zuzenbideko oinarriak aztertzen joan garen bitartean, Patronatuaren jarrerarekin zerikusia duten epaiak ere egin dira. Batetik, fundazioak sortzeko interes orokorreko xedeetarako behar bezala erabiltzen dela zaintzearena dago. Testuinguru horretan, arestian aipatu dugun salerosketa kontratua baliogabetzea sustatu da, demandatzaile gisa, eta, prozedura judicial horretan, Patronatua bere eskubide eta arrazoibide guztiaz baliatuko da helburu duen interes orokorra babesteko. Hala ere, fundazioak sortzeko zaintza eskubidearen fundazioen aholkatzeko, laguntza teknikoko eta kontrolatzeko jardueraren testuinguruan kokatzen den jarrera hori, patronatuak burutuko dituen jarduerekin bereizi beharra dago. Jarduerak Fundazioen Erregistroko kudeaketari buruzkoak dira. Horrela, funtzioak (FBA, 1. a) artikulua) eskuratzeko prozeduran erregistro publikoari eskatutako erregistro publizitatearen ezezkoa ezin du oinarritu (FBA, 1. b) artikulua).

Nahastea, gainera, larria da. Izan ere, administrazioa informazio eskubidea ukatzen ari da, horrekin lotura zuzena duten interesa dakizkiokeen babeserako eskubidearekin eta dokumentuzko probak lortzearekin. Arrazoi gisa, hain zuzen ere, prozedura judizialean mantentzen duen jarrera juridikoaren alderdiak aurkeztu ditu.

Horrela, 1963. eta aurreko urteetan fundazioen institutu juridikoa erregulatzen zuen araudiaren berri eman eta gero, bertan garbi ikus daiteke ez zela aurrekusi fundazioen erregistrorik egongo zela. Horretan oinarrituta, uste du ez dela bidezkoa erregistro publizitatea egitea, aipatzen dituen arauak eraturako ordenamendu juridikoan, fundazioak eta ongintzazko gainerako establezimenduak "sailkapenaren" araubideari lotuta baitzeuden, eta ez "erregistroko inskripzioarenari".

Horrexegatik ebazpenak honakoa arrazoitzen du: *"Publizitate formalaren eskaera jakin horrekin eta arestian arrazoitu dugunaren arabera, Santurtziko Udalaren onarpena erregistroan erregistratu ezin denez gero, eskatzaileak, trebeki, itxura egin nahi du Fundazio horretako Patronatuaren titulartasuna behin-behinekoa edo etsipenekoa dela adieraziz."*

Ondoren, hori horrela ez ulertzearen arrazoiak argumentatzen ditu eta ondorengoa adierazten du: *"Nabarmendua behar da erakunde eskatzaileak (...) oso ongi dakizkiela gai horiek guztiak, eta, hala ere, bere eskaera aurkeztu duela Santurtziko Udalak, Eskubidez, betetako patroikarguaren legezotasuna eta legetimitatea zalantzan jartzeko azpajoko gisa."*





Laburbilduz, ebazpenak fundazioa eta, antza, Santurtziko Udalaren patroikargua inskribatuta ez egotearen arrazoiak ematen ditu. Ildo beretik jarraituz, ebazpenak udalari dagokion patroikarguaren legezketasunari eta legitimitateari buruzko baieztapenak egiten ditu, merkataritzako enpresak hori guztia zalantzan jartzeko egin duen maniobrarekin alderatuta.

Gure iritziz, arrazoi horiek ezin dira kontuan hartu eskatutako erregistro publizitatea ukatzeko, erregistro datuak eskuratzeko eskubideekin zerikusitik ez izateagatik.

3. Aurrekoa aipatuta, merkataritzako enpresak egindako erregistro datuen eskaeren eta erregistro publizitatea ukatzeko aurkeztutako arrazoi zehatzen balorazioa egin behar da. Fundazioaren Erregistroaren Erregelamenduak, Erregistroaren edukia eskuratzeko, interes legitimoaren bi aukera ezberdintzen ditu:

- Fundazio baten inskripzio, izen, xede eta helbideari buruzko erregistro datuak lortzeko jada interesa badagoela ulertuko da (Fundazioen Erregistroaren Erregelamenduko 13.2 artikulua).
- Aurreko paragrafoan adierazitako erregistro datuak ez direnean, beharrezkoa izango da eskatzaileak interes legitimoa arrazoitzea. Interes legitimoa, gainera, behar bezala justifikatu beharko da (Fundazioen Erregistroaren Erregelamenduko 13.3 artikulua).

Horrez gain, administrazio jardueraren ondorioetara, erregelamenduaren honako alderdiak hartu behar ditugu kontuan:

- Erregistroa idazpenen edukari buruzko ziurtagirien bidez egingo da publiko, ohartarazpen sinplearen bidez edo erregistroan dauden dokumentuen kopia konpultsatuen bidez, eskatzaileak eskatzen duenaren arabera. Ziurtagirien bidez bakarrik egiazta daiteke, modu fede emailean, erregistro idazpenen edukia (Fundazioen Erregistroaren Erregelamenduko 14. artikuluko 1. eta 2. idatz-zatiak).
- Inskripzio idazpenek gutxienez honako inguruabarrak eduki behar dituzte: a) dokumentuaren izaera eta mota; b) dokumentua egin zeneko lekua eta data; c) hori baimendu edo egitearen inguruko datuak, eta baimendu duen notarioaren edo egin duen epaile edo funtzionarioaren izena, edota dokumentu pribatuak izenpetu dituzten pertsonen izena; d) idazpenaren data eta erregistroaren arduradunaren sinadura (Fundazioen Erregistroaren Erregelamenduko 24. artikulua).

Aurreikuspen horien argitan, burututako jarduerak aztertu ditugu, ondoren adieraziko ditugun oharren arabera.





Lehenik eta behin, 2008ko apirilaren 7ko ebazpenak adierazten du, haren zuzenbideko oinarrietan, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistro berrian ez dela ireki erregistro orria. Alegatutako arrazoien artean, besteak beste, fundazioak eta ongintzazko gainerako establezimenduak garai hartan "saillapenaren" araubideari lotuta egotea da eta ez "erregistroko inskripzioarenari".

Hala ere, egindako ziurtagiriak adierazten du Santurtziko Udala Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan "inskribatuta" dagoela, bitarteko patroia gisa. Fundazioen Erregistroaren Erregelamenduko 5 eta 11.1 artikuluekin bat etorritik, Erregistroaren eraginkortasuna segidako traktuaren printzipioan oinarritzen da. Hala, beraz, fundazio bati buruzko egintzak inskribatzeko, fundazioa bera inskribatuta egon beharko da aurretik. Hortaz, lehen esandakoaren arabera, fundazioa ez badago inskribatuta, ez litzateke posible izango Udala fundazioaren patroia gisa inskribatuta egotea, hala izanez gero, ez baitzatekeen segidako traktuaren printzipioa errespetatuko. Bestalde, Santurtziko Udala bitarteko patroia gisa erregistratuta egongo ez balitz, ezin uler daiteke, ezta ere, nola ziurtatu den horren inskripzioa.

Aurrekoak bi balizko egoeren aurrean kokatzen gaitu: a) igorritako ziurtagiritik ondorioztatzen den moduan, Santurtziko Udala bitarteko patroia gisa inskribatuta dago. Kasu horretan, beharrezkoa da Erregistroko arduradunak idazpenaren inguruko informazio oro ematea, Fundazioen Erregistroaren Erregelamenduko 24. artikuluan xedatutakoaren arabera, baita informazioaren idazpenak egin zireneko data ere; b) inskripzio hori egin ezean, beste ziurtagiri negatibo bat behar luke, zuzenduta, alegia, fundazioa inskribatuta ez dagoela adierazita, 1963ko Agindutik dituen datuak edukian barneratu ahal izatearen kaltetan izan gabe, eskutan duen administrazio espedientearen ikusita.

Bigarrenik, 2008ko urtarrilaren 10eko ziurtagiriari dagokionez, Erregistroko arduradunak egindakoa, azpimarratu behar da ziurtagiriak ez dituela fundazioaren inskripzioa, izendapena, helburua eta helbidea aipatzen. Horretarako, eskaera besterik ez baita aurkeztu behar (Fundazioen Erregistroaren Erregelamenduko 13.2. artikulua). Eskatzaileari bidalitako ofizioak berak dioen moduan, "(...)" fundazioko patronatua aipatzen du, alegia, fundazioaren organo baten osaketa eta, horretarako, Fundazioen Erregistroaren Erregelamenduko 13.3. artikulua adierazten duen interes kualifikatua ezinbestekoa zen. Badirudi onartu zela kexagileak eskaera egiteko edonork duen interes generikotik baina harantzago zihuan interesa zuela.

Zentzu horretan, uste dugu Fundazioaren Erregistroaren arduradunaren hasierako jarduerak tartean jada merkataritzako enpresa interesdunaren interes legitimo kualifikatuaren errekonozimendua zuela (Fundazioen Erregistroaren Erregelamenduaren 13.3. artikulua). Beraz, horri dagozkion ondorengo errekerimenduak inkongruenteak izango liriateke jada aztertutako legitimitatearekin.





Hala ere, kexagileari honakoa eskatu zitzaion: *“Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroko arduradunak zer dokumenturen kopia nahi duen zehazteko eskatu zion, eskatzailearen interesa legitimotzat hartu ahal izateko”*. Antza, errekerimendutik ondoriozta daiteke, interesdunak eskatzen dituen dokumentu zehatzen arabera, eskatzailearen interes legitimoa kalifikatuko dela.

Jada lehenengo idazkia aurkeztu zenetik, merkataritzako enpresak adierazi zuen aipatu fundazioarekin erlacionatutako erregistro publizitate guztiaren berri izateko interes legitimoa zuela, Hijas de la Cruz eskolaren kokaleku diren lurrak erosi baititu eta bai Udalak bai Eusko Jaurlaritzak auzitara eraman baitute, erantsi duen epatzeko zedularen arabera.

Alegazio horri dagokionez, erregistro publizitatea ukatzen duen 2008ko apirilaren 7ko ebazpenak dio prozedura judizialen bateko parte izateak ez diola, “per se”, demandatuari edo demandatzaileari baimenik ematen *“kontrako alderdiari”* buruzko dokumentazio guztia jasotzeko, baizik eta kasuan kasu justifikatu behar da zer harreman duen eskatutako dokumentazioak prozesuaren xedearekin. Horregatik eskatzen dio Fundazioen Erregistroaren Erregelamenduko 13.3 artikulua eskatzaileari eskatu dituen datu edo dokumentuekiko interes legitimoa behar beste justifikatzeko.

Uste dugu kasu honetan merkataritzako enpresa erreklamatzaileraren eskaerak egiaztatzeko beharrezkoa den justifikazio gabezia duela jarraian aipatuko ditugun arrazoiengatik.

Interes legitimoak adierazten du asmoa gauzatu nahi duenak abantaila egoeraren edo erabilera juridikoaren titulartasun potentziala duela; alegia, eskatutako informazioa lortzeak berehalako ondorio positiboa (onura) edo negatiboa (kaltea) dakarkiola legitimatuari. Ondorio hori orain edo etorkizunean azaleratuko da, baina benetakoa da (**Auzitegi Nagusiaren 1990eko urriaren 1eko epaia**), eta agertzen denari dagokion esparru juridikoan eragingo du, nola zuzenean hala zeharka (**Auzitegi Nagusiaren hainbat epai: 1991ko otsailaren 4koa, 1995eko martxoaren 17koa eta ekainaren 30ekoa, 1996ko otsailaren 12koa, 2000ko urtarrilaren 25ekoa, 2002ko apirilaren 16koa** eta beste asko). Bestela esanda, adierazitako asmoak aurrera eginez gero, abantaila edo erabilera juridikoren bat sortuko da.

Interes legitimoaren kontzeptua, gainera, “oso irizpide zabalarekin” interpretatu behar da, irizpide zabal eta estentsibo hori onartu ezean, gizabanakoan itxaropenen babes orokorra bermatzeko aldarrikatzen den legitimazioaren interpretazio murriztaileak (administrazio bidean) ez eraginkor bihurtuko luke eskubideaz baliatzea eta eragotzi egingo luke Konstituzioaren 24.1 artikulua aipatu itxaropenak babesteko ezarri duen legitimazio aktiboaren zabalatasuna.

Kasu honetan, ukazina da merkataritzako enpresak Erregistroan jasota dagoen eta fundazioarekin zerikusia duen informazio oro lortzeko duen interesa, formalizatu duen salerosketa eragiketa juridikoa dela medio. Horregatik bakarrik jada justifikatuta egongo litzateke fundazioari buruzko informazio guztia





eskuratzeko duen interesa, baina, horrez gain, kasu honetan, salerosketa eragiketa zalantzan jarri eta baliogabetu egin denez, hain zuzen ere departamentuak orain informazioa ukatu duelako, erregistro publizitatea positiboa edo negatiboa izan daiteke bidean den prozedura judizialean bere interes legitimoa defendatzeko. Nolanahi ere, horren emaitza edozein dela ere, ondorio garrantzitsuak izango ditu, batez ere kontuan izanda, ebazpenetik ondoriozta daitekeenaren arabera, bide judizialean eztabaida sortu dela fundazioaren jarduera jakin batzuk inskribatzeari eta/edo horiek behar izateari buruz.

Laburbilduz, 2008ko urtarrilaren 10eko ziurtagiria ematerakoan jada interes legitimo kualifikatua onartu izateaz gain, ezin dugu inguruabarra sahiestu, Fundazioen Erregistroaren Erregelamenduko 13.3. artikuluan xedatutakoaren arabera, uste dugu merkataritzako enpresak behar bezala egiaztatu duela erregistro publizitatea eskatzeko duen interes legitimoa, fundazioarekin harreman juridikoa baitu eta gaiaren inguruan lor dezakeen informazioa bere interes legitimoetarako garrantzitsua baita.

Azkenik, 2008ko apirilaren 7ko ebazpenak egiten duen kalifikazioa aipatu behar dugu, eskatzailearen asmoei buruzkoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroko dokumentu guztien kopia lortzeari dagokionez. Ebazpenak egindako eskaera *"como una pretensión excesiva e injustificada, además de contraria al artículo 37.7 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común"*, kalifikatzen du. Artikulu horren arabera, herritarrek ezin dute murriztu zerbitzu publikoen funtzionamenduaren eraginkortasuna, artxiboetara eta erregistroetara irispidea izateko eskubideaz baliatzerakoan. Herritarrek, hortaz, aztertu nahi dituzten agiriak banaka zehaztu behar dituzte eskaeran; hau da, ezin dute gai edo gai-multzo baterako eskabide orokorrik egin.

Errekurtsoa, hasiera batean, eraginkorra, dokumentuak ez eskuratzeko arrazoi gisa, kontu handiz haztatua edo ponderatua izan behar da, eragozpenik sor ez dezan herritarrak baliatu nahi duen eskubidea gauzatzekoan. Uste dugu, finkatutako jurisprudenziak jada adierazi duen moduan, inola ere ez dela nahikoa interferentziari egindako erreferentzia hutsa, administrazio funtzionamendu eraginkorrean eskubideaz baliatzerakoan. Gure ustez beharrezkoa da administrazioak, modu frogagarrian, erakutsi behar duela eskubide horretaz baliatzearen asmoak eraginkortasunaren printzipioari modu erabakigarrian eragiten diola.

Kasu honetan, eskaerak fundazio jakin bati buruzko datuak baino ez zituen hizpide eta, bereziki, Santurtziko Udalak patroik kargua onartzeari eta onarpen hori inskribatzeari buruzko idazpenak. Administrazioak ez du inolaz ere arrazoitu zergatik den gehiegizkoa eta bidegabeta merkataritzako enpresa erreklamatzailerak eskatu duen informazio zehatza eskuratzeko asmoa.





Nahiz eta fundazio jakin bati buruz eskatutako datuek erregistroaren funtzionamenduaren eraginkortasuna murriztu ezin duten, kontua da, kasu honetan, gainera, berariaz aipatu zela batez ere udal agintaritzak patroikargua onartzearen inguruko alderdiek sortzen zutela interesa. Hori, nolana ere, Erregistroan dauden dokumentuen banakako eskaera zen. Horretaz guztiaz gain, esan behar da, behin eta berriro aipatutako ebazpenaren arabera, 1963az geroztik ez dela inskripzioarekin erlacionatutako egintzarik burutu. Hortaz, nekez ondoriozta liteke ziurtagiria egitea zekarren informazioa gehiegizkoa eta ezin justifikatuzkoa zela eta erregistroaren beraren funtzionamenduari eragiten ziola.

Hori guztia dela eta, erakunde hau sortzen eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 11 b) artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, honako gomendio hau egiten da:

24/2008 GOMENDIOA, irailaren 18koa, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailari egina.

Merkataritzako enpresak eskatutako dokumentuen erregistro publizitatea eman dezan, "(...)" fundazioari buruzkoak eta, batez ere, Santurtziko Udalak patroikargua onartzeari eta onarpen hori inskribatzeari buruzkoak.

Horren ondorioz, Fundazioen Erregistroko arduradunak, egindako eskaerarekin bat etorriz, haren kargura erregistroko dokumentuak igor ditzan, legez aurreikusitako edukiarekin eta inguruabarrekin eta, kasu honetan, jada igorri ahal izan dituenak konpondu edota osatu ditzan.

